



LIBURUA

Elkarrekin pentsatzeko proposamena



JON HERNANDEZ

MAITASUN KAPITALA KARMELE JAIIO

ELKAR, 2023

AMAIA ALVAREZ URIA

Literaturako bi topiko nagusiak dira Eros eta Thanatos, maitasuna eta heriotza, eta maitasun erromantikoa elkarrekin pentsatzeko proposamena egiten digu Karmele Jaio bere azken eleberrian: *Maitasun kapitala*.

Azaletik bertatik argi geratzen da askatzeko zaila den korapilo baten aurrean kokatzen dela irakurlea. Eta lan honetako lehen planoan bikote heterosexuala egongo dela sumatu daiteke. Baina berde koloreak esperantza ere ekarriko digu, izan ere, maitasunak badiu aurpegi asko: indar askatzailea eta menperatzailea baita.

Olga da protagonista, eta hil berri den Martinekin sutsuki maitemindu da. Hala ere, harreman horrek gozamenaz gain min handia ere ekarriko dio. Nobela honetan bere sentimendu eta pentsamen-

duen berri izango dugu; bere doluaren garapenaren lekuko izango gara.

Artelan aukeratuek itxiko dituzte kapitulu asko, maitasun erromantikoaren diskurtso eta irudikapenak eskainiko dizkigu Jaio orriotan; botere-harremanak eta menpekotasuna alde batetik, eta zoriontasuna eta adiskidetasuna jarriko dizkigu balantzan bestetik.

Ikuspegi feministatik eta literatura-aren bidez landu nahi izan du maitasuna egileak eta ausarta eta anbiziotsua iruditu zait, baina, nahiz eta debaterako oso material ona iruditu zaidan eta ondo harilkatuta dagoela uste dudana, eleberriz moztortutako saiakera bat dela esango nuke.

Pentsamendua, kontzeptuak, ideiak esplizitatzen dira etengabe irudiak, sinboloak, metaforak bigarren mai-

la batean utzita. Protagonista unibertsitateko literatura irakasle bat izan arren, lan honetan maitasunaren teorizazioak leku gehiegi hartzen duela uste dut, fikziozko lan bat izateko, behintzat.

Asko gustatu zait buztinezko emakumearen irudia, bestearen desiraren arabera moldatzen, eraldatzen, egokitzen dena. Baita Bakarne pertsonaiaren kontrapuntua eta amaieran agertzen den erakusketaren ingurukoak ere. Edo auto-maitasunaren eta lagunekiko maitasunaren garrantzia azpimarratu izana. Edonola ere, esan bezala, protagonistaren eta bere ingurukoaren esperientziei utziko nieke hitz egiten gehiago, eta ez haien pentsamendu eta gogoeta arrazionaleri hainbeste leku eman. ●